

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Deunoro Sardui Enbeita

*Muxika,
Bizkaia
(1934-2022)*

Aurkibidea



Biografia



Ariatza auzoko Zubikoa etxean, "Fuentebarri" izenez ezaguna den etxean, jaio zen 1934. urteko urte berri egunean. Aita bertakoa zuen eta ama Usparitxa auzoko "Jeuri"koa (Jauregi). Bere ama Kepa Enbeita "Urretxindorra" bertsolariaren alaba nagusia zen. Gazterik hasi zen bertsotan Deunoro, eta Bizkaiko hainbat txapelketako finalista izan zen. Ariatzako bere jaiotetxean sortu zuten Euskal Herriko lehen bertso-eskola, "Garriko" bertso-eskola. Gerra Zibilean bi urtez etxetik kanpo egon ziren, Kantabriaraino joan baitziren. Bere aita eta hainbat osaba eta izeko bat ere kartzelan egon ziren beraien abertzaletasuna tarteko. Ariatzako eskolatik, 11 urte gaz Igorreko marianistetara joan zen 13rekin Arteako seminaria joan arte. Urtebetegarrenean, seminarioa utzi eta lanean hasi zen. Bertsolaritzaz gain, euskalgintzako eta kurturgintzako hainbat ekimenen partaide eta bultzatzaile izan da: Gernikako gizarte-etxeko tabernan euskarazko lehen gau-eskolak eman zituen, Seber Altube ikastolako sortzailea Altube berarekin batera, hainbat aldizkaritan hartu du parte "Alper" ezizenarekin, Ariatzako Zaragiaren hiletako antzezlea...

Zintak

MUX-045

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-25
- **Iraupena:** 63 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-046

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-25
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-047

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-25
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-048

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-28
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-049

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-28
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

MUX-050

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-28
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Deunoro: santu guztiak izen berean

- **Erref:** MUX-045/001
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere izen osoa Deunoro Txaber da. Deunoro eta Txaber izenen jatorria azaltzen du. Urteberri egunez jaio zen, urtarilaren 1ean. Hainbat izen desberdin izan zituzten gogoan bere etxekoek, eta izen denak batera jartzeko jarri zioten Deunoro, "Deun oro", santu guztiak batera. Izen bera duen pertsona bakarra ezagutzen du, bere besoetakoa den iloba.

2. Zubikoan jaioa

- **Erref:** MUX-045/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ariatza auzoko Zubikoa etxean jaio zen. "Fuenterrabia" izenez da ezaguna, baina, antza, izen hori berria da, gerora jarritakoa. Taberna zuten etxean. Bere aita zen bertakoa.

3. Amaren jaiotetxea jauregia izan zen

- **Erref:** MUX-045/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Ama Usparitza auzokoa zuen, Urretxindorra bertsolariaren alaba. Amaren jaiotetxea jauregia izan zen antzina, Espainiako agintaria zen Cardenal Cisneros jaunak gaztelu guztiei dorrea kentzeko agindua eman zuen arte.</p>

4. Ariatza: bertsolari auzoa

- **Erref:** MUX-045/007
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:11:26. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bere aita tabernako bertsolaria zen. Amaren familiakoak, Enbeitatarrak, ziren bertsolari ezagunak. Herrian hainbat bertsolari izan dira: Enbeitatarrak, Lopategi, Iturri...</p>

5. Euskal Herriko lehen bertso-eskolaren sorrerako arazoak

- **Erref:** MUX-045/008
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Euskal Herriko lehen bertso-eskola bere etxekoek sortu zuten: Garriko. Bere osaba, Pedro Ajuriagojeaskoa, izan zen horren sustatzailea eta taberna zuenez, tabernan batzea onartu zuten. Gerraostea zenez, galarazita zegoen eta arazo asko izan zituzten, osabari taberna zarratu baitzioten. Deunororen etxea ere miatu zuten bertso-eskolako hainbat paper zituelako.

6. Bertso-saiorako Guardia Zibilaren baimena

- **Erref:** MUX-045/010
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1966. urtean Gernikan bertsoketa bat antolatu zuten, eta Guardia Zibilaren baimena behar zuten. Bertsolari guztien izen-abizenak behar zituzten. Baimena lortzeko traba asko jarri zituzten. Estualdi horretan, 15 egun pasa zituen Bermeon bertako ontzi batean erdi ezkutatuta.

7. "Garriko" izenaren zergatia

- **Erref:** MUX-045/012
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:21:34. **Bukatu:** 00:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertso-eskolari "Garriko" izena zer dela-eta jarri zioten azaltzen du.

8. Txakolinetan herririk herri bizikletaz

- **Erref:** MUX-045/013
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:23:21. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetan txakolinetan joaten ziren batetik bestera bizikletaz, Gasteizeraingo joan izan ziren. Behin Eako txakolindegia batean eta beste hainbatetan gertatu zitzaizena dakar gogora.

9. Mutil artean beti, andrazkoa zer zen jakin barik

- **Erref:** MUX-045/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:29:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Herririk herri txakolinetan herriko 14 gizon inguru ibiltzen ziren, emakumezko barik. Soldadutzatik bueltatu arte ez ei zekien andren inguruan ezer ere ez.

10. Hasierako bertso-eskolak eta saioak

- **Erref:** MUX-045/016
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:31:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Beraiek sortu zuten lehen bertso-eskola. Gero, Azpeitiko bertsolariek bide bera hartu zuten. Lehen doinu gutxi batzuk baino ez zituzten erabiltzen, ez du zerikusirik gaur egungoarekin.</p>

11. Eskolara hasi orduko irakurtzen zekien

- **Erref:** MUX-045/019
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ariatzako auzoko eskolan zazpi urte bete aurretik lehen hasi zen. Gauero Grimm anaien ipuinak irakurtzen zizkien amak, eta eskolara hasi orduko polito zekiten irakurtzen. Hori dela-eta, bera baino nagusiagoi irakasten zien.</p>

12. Ariatzako eskolako argazkiak eta ikasle-zerrenda

- **Erref:** MUX-045/020
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Ariatza auzoko eskola auzotarrek eraiki zuten, etxean ditu bertako ikasle guztien zerrenda eta hainbat argazki eta horietako asko ikus daitezke grabazioan. Lehen ikasturtean 7-14 urte bitarteko 46 neska-mutiko batu ziren.

13. Ariatzako lehen eskola

- **Erref:** MUX-045/021
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:38:54. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Ariatza auzoko lehen eskola mutilena izan zen, eraikin hori agertzen den argazki zaharra du esku artean Deunorok. 1924. urtean sortu zen eskola eta orduko ikasle-zerrenda ere badu. Elizalde auzoko eskolako 1954. urteko argazki bat ere erakusten du bertako ikasleen izenekin batera.

14. "Letraue": Bilbora ikasten joan zen lehena

- **Erref:** MUX-045/023
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:43:49. **Bukatu:** 00:44:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Ariatzako eskolako dokumentu zaharretan sasoi hartako alkatea eta juntako idazkaria azaltzen dira. Idazkariari "letraue" esaten zioten, bera izan baitzen Ariatzako auzunetik Bilbora ikasten joan zen lehena.

15. Eskolako gurasoen sinadurak

- **Erref:** MUX-045/024
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:44:42. **Bukatu:** 00:46:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Ariatzako eskolako sorreran parte hartu zuten gurasoek sinatutako paperak erakusten ditu.

16. Deunoro izatetik Santos izatera

- **Erref:** MUX-045/025
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:46:05. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Eskolako "cuadernos de limpio"ak erakusten ditu, diktaketetako erabiltzen zutena. Santos Sarduy bezala sinatu behar izaten zuen, euskarazko izenen debekua tarteko.

17. Nesken maistra gogorra

- **Erref:** MUX-045/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:51:49. **Bukatu:** 00:54:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Maistra gasteiztarra izan zuten mutilek Ariatzako eskolan, doña Dolores. Nesken maistra oso gogorra zen, berarekin izandako gertakizun bat kontatzen du.

18. Abadeak josteko makina ostu

- **Erref:** MUX-045/029
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:54:14. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Gorozikako familia batean gertatutako kontatzen du. Bertako amak josteko makina bat zuen eta errekisatu egin zien. Semeak, Jonek, abadearen kamanan (ganbaran) aurkitu zuen makina hori beste askoren artean; amari esan eta abadeak belarrondoko itzela eman zion. Hala ere, azkenean, amak berreskuratu zuen berea zena.

19. Seminarioko zigorrak

- **Erref:** MUX-045/030
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:56:25. **Bukatu:** 00:59:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Latinez edo gaztelaniaz ikasteko dena ikasi behar izaten zuen buruz, ez baitzuen tutik ulertzen. Seminarioan euskaraz egiteagatik beti egoten zen zigortuta. Abade batek "desgraciado" deitu zion eta amak hasieran ez zion sinistu. Arteako seminarioan egon zen.

20. Erdaraz ez zekielako txarto ikusia

- **Erref:** MUX-045/032
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioan txarto ikusia zen ez zekielako gaztelaniaz eta gorriak ikusi zituen hori dela-eta.

21. Seminariotik etxera bidali zutenekoa

- **Erref:** MUX-046/001
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Arteako seminariotik irteteko gogoaz zuen Deunorok berak, baina bertan egindako zerbaitek bideratu zuen irteera, ez bere nahiak. Komunean "Petalanda, surre janda" (Petalanda, sudurra janda) idatzi zuen bertako lagun bati erreferentzia eginez. Gero Deriokora joan zen, beste hainbat bertsolarirekin batera.

22. Eskolako ariketak eta arazoak

- **Erref:** MUX-046/005
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:08:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan diktaketak eta matematika-ariketak lantzen zituzten doña Doloresekin. Erdaraz idazterakoan ortografia zalantzak izaten zituzten. Eskolako liburuez gain, kartak idazteko liburuxka bat ere bazuten. Arbela eta arbel-ziria (pizarrina) izaten zuten. Eskolako mutil batek oso-oso ondo margotzen zuen.

23. Auzo bakoitzaren ezaugarriak

- **Erref:** MUX-046/006

- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:08:02. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Ariatzan bere emaztearen izeko bat dago beatifikatuta. Usparitza auzoko ermitako Jesu Kristo biluzik dago, barrabilak-eta bistan dituela. Auzo bakoitzak bere ezaugarriak ditu: dorreak, errota, ermitak...</p>

24. Usparitzako San Migel San Isidro baino zaharragoa da

- **Erref:** MUX-046/007
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Usparitza auzoko jaieguna San Isidro da, baina berez San Migel da. Antzinako istorio batean dago ospakizun horren jatorria eta horixe bera azaltzen digu Deunorok. Gaur egun ere bi egun horietan ematen da meza.

25. Umetako olgetak

- **Erref:** MUX-046/011
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:25:48. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ariatzako kaminoa oso estua zen eta bertan aritzen ziren olgetan. Zertan jolasten ziren azaltzen du. Pospolo-kaxa bila Gernikara joaten ziren futbol-partiduetako hondarrak batuz. Ixerka, tronpaketan, "vuelta de España", txirloka, intxaurrekin...

26. "Vuelta de España" oinez

- **Erref:** MUX-046/012
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bizikletarik ez zuten, baina "Vuelta de España" oinez egiten zuten. Lasterketa horren sasoia zenean, etapak elizari bueltaka burutzen zituzten. 22 etapa ziren eta egunerorako denbora-pasa izaten zuten.

27. "Taparrabos" a jantzita erre kara

- **Erref:** MUX-046/013
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:31:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak

Laburpena:

Udan, jolas-orduan, "taparrabos" a jantzita joaten ziren erre kara. Doña Petra maistrari zantarkeriak egiten zizkieten. Neskak ez du uste joaten zirenik.

28. Pilotan

- **Erref:** MUX-046/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan aritzeko pilotak erosi egiten zituzten. Julio Onaindia gernikarragaz jolastu zuen askotan pilotari handien kontra.

29. Bertsotan hasi zenekoa

- **Erref:** MUX-046/019
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:41:16. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertsotan zelan hasi zen berak ere ez ei daki oso ondo. Lehen saioa beraien eskolako maistraren senarraren bitartez egin zuen. Hurrengo batean, Natxituko (Ea) Santa Agedatan jakin zuen lehenengo bertsoaren bukaera pentsatu behar zela Uztapidek esanda. Gerora, Uztapide eta Basarrirekin Lekeition bertsotan egin zuenean, Uztapidek asko ikasi zuela esan zion.</p>

30. Lopategik beste bertsokera bat zuen

- **Erref:** MUX-046/020
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:44:44. **Bukatu:** 00:45:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Lopategi beraiek baino beranduago hasi zen bertsoan. Kanpoan egon zen ikasten eta etxera hogeita piku urterekin etorri zen; orduan hasi zen bertso-eskolan. Ikasketak zituenez, beste bertsokera bat erabiltzen zuen honek, beste kategoria batekoa.</p>

31. Bertsoan egin aurretik jakin beharrekoen garrantzia

- **Erref:** MUX-046/021
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:45:43. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Mungiako Taket-egaz eta Ermuko"Etxain"egaz asko ikasi zuen. Gipuzkoan herririk herri asko ibilitakoak ziren eta ondo ikasi zuten beraiek irakatsi zien lez, bertsoan egin aurretik herriko eta herritarren berri jaso behar zela.

32. 'Txotxo Jeuri' tabernazalea

- **Erref:** MUX-046/022
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:52:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Bere aitita, Urretxindorra, ez zen tabernako bertsolaria. Haren aita, Txotxo Jeuri, ostera, taberna zuloan egotekoa izaten zen. Behin apustu bat tarteko zela, astelehenetik zapatara arte egon ziren tabernan.</p>

33. Aitite eta neba-arrebak ez ziren tabernazaleak

- **Erref:** MUX-046/023
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:52:28. **Bukatu:** 00:54:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bere amaren aldeko aitite Urretxindorra bertsolaria izan zen. Bera eta bere neba-arrebak ez ziren tabernazaleak. Behin bere aititek, Pedro Jeuri auzokoentzat, ardoa eskatu zuen eta denak begira izan zituen.</p>

34. Aitite Euskal Herri osoko bertsolaria

- **Erref:** MUX-047/001
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bere aitita bertsolari legez mitinlari bezala ere aritutakoa izan zen. Euskal Herri zabalean aritzen zen eta tokian tokiko euskara erabiltzen saiatzen zen. Urretxindorra ezizena zer dela-eta jarri zioten azaltzen du. Arrospide medikuarekin asko ibiltzen zen, eta behin bidean buelta hartu zuen herritarrekin zuen ardura zela-eta.</p>

35. Dolores Ibarruriren abizenaren jatorria

- **Erref:** MUX-047/002
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:02:43. **Bukatu:** 00:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimeduak

Laburpena:

<p>Ajuria auzoan kitanuak egoten ziren. Arrospide medikuak haietako bat artatu zuen behin, umea izatekotan zegoela. Kitanuei medikuak baldintza bat jarri zien, umeari abizen bezala herri horretako izena jartzea: Ibarruri (Ibarruri udalerria baitzen Muxikarekin bat egin aurretik, eta Ajuria bertako auzoa). Ume horren ondorengoa Dolores Ibarruri zela diote. Bere aititek, Urretxindorrak, bertso batzuetan ere istorio bera kontatu zuen.</p>

36. Kitanuak Muxikan

- **Erref:** MUX-047/003
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Inguru hauetan agertu ziren lehen kitanuak nafarrak ziren. Muxikan Zubizabalen eta Elizalde inguruan ere egoten ziren, Besangizerako bidean.

37. Desadostasunak gipuzkoarrekin

- **Erref:** MUX-047/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Gernika-Lumon antolatutako bertsoketa batean, baldintza bakarra hauxe izan zen: epaimahaikideak bertsolariei lepoa ematea eta puntuazioa kartel bidez ematea. Gipuzkoarren eta gainerakoen artean alde handia zegoen. Bere ustez bertsolariari kantatzeko era baino gehiago puntuatu behar zaio.

38. Bilboko alkatea siestan zegoela-eta, ezin kantatu

- **Erref:** MUX-047/011
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Lehen ez zegoen bertsolari edo bertsozale elkarterik, erabakiak txapelketetan hartzen ziren. Bizkaiko bigarren finalean, Bilboko Areatzan (Arenalean) ospatutakoan, Bilboko alkatea, Kareaga andrea, siestan zegoela eta Guardia Zibila joan zen. Hainbat tokitan ospatu izan dira Bizkaiko finalak.

39. Umetako gerrako akorduak

- **Erref:** MUX-047/014
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:27:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

1934. urtean jaio arren, gerrako kontuak ezagutzen dituzte. Sasoi hartan Bilbon egon zen, bertara joan baitziren ihesi. Oraindik gogoan du hura. Ez zuen oso ondo ulertzen abioien etorrera eta sirenen hotsa.

40. Bi urtez ebakuatuta; etxea erdi suntsituta

- **Erref:** MUX-047/015
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:27:41. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Bizkaiko frontean nazionalak sartu zirenean, etxetik alde egin behar izan zuten. Beraien etxea erreta aurkitu zuten bueltatzerakoan, ezkutuan izan zituzten koltxoi batzuk baino ez zituzten aurkitu. Bizkargiko fronteak bederatzi hilabete iraun zuen eta beraiek bi urtez egon ziren kanpoan.</p>

41. Gerraostean apurka-apurka aurrera

- **Erref:** MUX-047/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean azukrea barik sakarina izaten zuten eta amamak ezkutatu egiten zien dena jan ez zezaten. Hala ere, jateko falta handirik ez zuten, amaren jaiotetxetik edo beste etxe batzuetatik jasotzen zituzten jakiak-eta. 14 urte zituela hasi zen beharrean.

42. Aita, izeko, osabak... preso

- **Erref:** MUX-047/017
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:31:45. **Bukatu:** 00:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

14 urte zituela hasi zen beharrean, aita oraindik kartzelan zela. Aita, hainbat osaba eta izeko bat izan zituen preso. Izeko hori gaixotu egin zen eta urte gutxira hil zen, bigarren umea izan ostean.

43. Norbere hilobia zularazi

- **Erref:** MUX-047/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:33:53. **Bukatu:** 00:35:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Ezer egin gabekoak hil zituzten gerran. Hainbaten kasuan, beraiek zulatu behar izan zituzten euren hilobiak. 8 urte zituen mutiko batek dena ikusi zuen eta sekula ez zuen kontatu non lurperatu zituzten.

44. Denetariko kartzela-zigorrak

- **Erref:** MUX-047/022
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:43:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere senitartekoak Santoñako kartzelan egon ziren, 1.200 preso inguru ziren. Gudari gehienek pare bat urte egin zituzten bertan. Beste asko, karguren bat

zutenak batik bat, denbora gehiago egoten ziren. Alkatearen oniritzia behar izaten zuten askok askatasuna lortu ahal izateko.

45. Ikastolaren hastapeneko buruko minak

- **Erref:** MUX-047/024
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:44:58. **Bukatu:** 00:48:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Gernika-Lumoko Seber Altube ikastolaren hastapenak gizarte-etxean daude. Herriak eraikitako eraikina zen, baina eliza jabetu zen. Jose Antonio Arana Martijak, Seber Altubek, Andone Ortuzarrek... parte hartu zuten sorrera hartan. Bi urtez egon ziren batetik bestera bueltaka baimena lortzeko, eta ez zen bide erraza izan.</p>

46. Ikastolaren sorrera

- **Erref:** MUX-047/025
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:48:31. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Pedro Omaetxebarria abadearen laguntzaz lortu zuten Gernika-Lumoko gizarte-etxean ikastola jartzea. 14 ume batu zituzten bi egunetan. Seber Altuberen izena jartzea erabaki zuten orduan. Bigarren ikasturtean 24 ume inguru batu zituzten. Lehen andereñoa Pili Alberdi izan zen. Kurtsoa gaingintzeko azterketak erdaraz egin behar izaten zituzten eskola publikoan, oso emaitza onekin gainera. Hirugarren urtean banaketa bat sortu zen ikastola barruan eta laugarrenean utzi egin zuen batzordea.</p>

47. Gizarte etxetik gaur egungo eraikinera

- **Erref:** MUX-047/028
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:55:13. **Bukatu:** 00:56:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Ikastolako lehen ikasturtean 14 ume egon ziren eta hirugarrenerako berrogeitik gora. Azkenean Udalaren laguntzarekin gaur egungo eraikinera joan ziren.</p>

48. Euskarazko gau-eskolak

- **Erref:** MUX-047/029
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:56:39. **Bukatu:** 00:59:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Ezkundu orduko euskarazko gau-eskolak ematen zituen gizarte-etxeko tabernan. Goiz-zale mendi taldearen izena ere berak erabaki zuen. Seber Altubek utzitako Josetxo liburuarekin ematen zituen gau-eskolak; liburu horren nondik-norakoak azaltzen ditu. Bertako ikasle batzuk banketxeetan kontratatu zituzten.</p>

49. 'Alper' ezizena aldizkarietan idazterakoan

- **Erref:** MUX-048/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Deunorok beti idatzi izan ditu ipuinak, aldizkarietan. Karmel, Zeruko Argia, Goizargi... aldizkarietan idazten zituen gaztetako ibileren kontuak. Euskal Herriko lurralde desberdinetako jendearekin izan du hartu-eman. Alper ezizena erabiltzen zuen idazkUNETAN.</p>

50. 'Brisas guerniquesas' eta 'Sirimiri zornozano' herri-aldizkariak

- **Erref:** MUX-048/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Aldizkarietan idazterakoan Alper ezizena erabiltzen zuen. Mota desberdinetako artikulak idazten zituen. 'Brisas guerniquesas' eta 'Sirimiri zornozano' herri-aldizkarietan idazten zuen. 'Sirimiri zornozano'ko lehen orria berak idazten zuen hilabetero.</p>

51. Euskara hutsezko aldizkariak

- **Erref:** MUX-048/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Sirimiri zornozano Zornotzan argitaratzen zen, eta
Brisas guerniquesas Gernika-Lumon. Euskara hutsezko
aldizkariak ziren. Argia aldizkaria Arantzazun argitaratzen zen
era klandestinoan. Santi Onaindiaren zuzendaritzapeko Karmel</
em> aldizkaria Larrean (Zornotza) ateratzen zen.</p>

52. Neska-lagunarekin ezin ezer egin

- **Erref:** MUX-048/008
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:12:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Neska-lagunarekin Gernikako Tiloetatik paseatzea larria ei zen, eskutik elkarri oratzearekin nahikoa zuten. Musu ematen ahalegintzea ere bekatu zen. Dena konfesatu behar izaten zuten. Deunorok Ariatzako abadeak zeintzuk ziren azaltzen du.

53. Neska-lagunaren berri etxean

- **Erref:** MUX-048/010
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Amari neska-lagunarekin hasi bezain pronto kontatu zion. Ez zion grazia askorik egin emaztegaiak lantegian lan egitea, agian etxeakoandre moduan ez zuelako balioko-edo pentsatzen zuelako. Martitzen batean ezkondu ziren.

54. Irratirako testuak eta grabaketak

- **Erref:** MUX-048/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

<p>Bere gazte garaiko lehen beharretako bat irratirako testuak idaztea zen. Radio Bilbaorako eta Mungiako irrati batentzat idazten zuen. Mungiako irrati horren inaugurazioan parte hartu zuen, baina pare bat urte baino ez zituen iraun. Hilabeteen behin Loiola irratirako grabazioak ere egiten zituzten Fuenterrabian, bere jaiotetxean. Etxean zuten irratia berak egin zuen. Radio Maymoko ikastaro batean ikasi zuen jakin beharrekoa, 2.000 pezeta ordaindu zituen ikastaroagatik.</p>

55. Soldadutzan morse ikasi zuen

- **Erref:** MUX-048/016
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:25:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Radio Maymon egindako ikastaro batek, soldadutzarako ere balio izan zion. Transmisioetan morse kodigoa ikasi zuen. Zelan ikasi zuen eta zein froga izaten zituzten azaltzen du. Azterketako emaitza onena berak lortu zuen.</p>

56. Soldadutzan lantegian baino gehiago irabazten zuen

- **Erref:** MUX-048/017
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:25:57. **Bukatu:** 00:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzako transmisioen atalean morse ikasi zuen. Azterketako emaitza onena atera eta hurrengo destinoa aukeratzeko eskubidea eman zioten. Getafera joatea gomendatu zioten eta bertara joan zen. Soldadutzan Gernikako Idiga lantegian baino gehiago irabazten zuen. Radio Primeran 1,5 pezeta irabazten zituen, destakamentuan 2,5, eta gero 6,5 eguneko. Sarjentuak 5 pezeta irabazten zituen.</p>

57. Amuma diruaren arduradun

- **Erref:** MUX-048/019
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:29:46. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

<p>Soldadutzan sarjentuak baino gehiago irabazten zuen. Bere etxeko dirua bere amamak administratzen zuen; beraz, baita berak soldadutzan irabazitakoa ere.</p>

58. Lantegiko dirua amarentzat, bertsotakoa beretzat

- **Erref:** MUX-048/022
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:32:16. **Bukatu:** 00:33:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Dirurik gehien soldadutzan izan zuen, etxean zegoela irabazitako guztia amari eman behar izan zion-eta. Bertsotan irabazten zuena berarentzat izaten zen. Bertsotan gehien kobratu zuenean, 300 pezeta jaso zituen, lantegiko astebeteko jornalaren bikoitza.

59. Bertsolarien jornala

- **Erref:** MUX-048/023
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:33:45. **Bukatu:** 00:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertsolariei Udalek ordaintzen zien. Busturialdeko txapelketa irabazi zuenean, 1.000 pezeta jaso zituen. Bizkaiko finalean lehenengoak 1.500 pezeta irabazi zituen eta bigarrenak eta hirugarrenak 1.000; berak hirugarren postua lortu zuen. Lantegian 10 ordu lan eginda, asteko jornala 74,40koa zen. Diru hori amari ematen zion. Hurrengo batean, lehenak 3.000 pezeta jaso zituen eta bigarrenak 2.000; berak orduan bigarren hori eskuratu zuen. Bigarren postu horren sariaren erdia baino ez zion eman amari.</p>

60. Gaztetako gastuak

- **Erref:** MUX-048/024
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:35:23. **Bukatu:** 00:37:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Bizkaiko final batean bigarren gelditu ostean, 2.000 pezeta irabazi zituen. Amari erdia eman zion eta beste erdia bere gastuetarako gorde zuen. Txakolinetara joaten zirenean, nahiko diru gastatzen zuten.</p>

61. Amak eta amamak zuten diruaren ardura

- **Erref:** MUX-048/025
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:08. **Bukatu:** 00:38:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Irabazten zuen dirua amari eman eta amak behar zuenean ematen zion. Hortik aurreratzen zuena amamari eman eta hark gordetzen zion. Amak diru hori beharrezkoa zuen 8 seme-alaba aurrera ateratzeko. Gaur egungo gazteek ez dute horrelakorik ezagutu. Bere neba-arreba gazteek ere ez zuten etxean entregatu beharra izan.

62. 'Alejo Mungia' eskalea Okako Torrebarrin

- **Erref:** MUX-048/027
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Karmel aldizkarirako ipuinak idatzi zituen. Ariatza inguruko kontuak-eta idatzi zituen. Somorrostro aldeko meategiak zarratu zituztenean, langabezian gelditu zen Mungiako Alejo, Alejo Mungia, eskean aritzen zen. Oso argia zen eta bazekien zein baserritara joan eta noiz (txerria hiltzerakoan...). Oka auzoko Torrebarrin gertatutako anekdota bat kontatzen ditu.</p>

63. "Alejo Mungia" eskalea Usparitzan

- **Erref:** MUX-048/028
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:43:45. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

"Alejo Mungia" eskean aritzen zen etxerik etxe. Oso argia zen eta bazekien zein baserritara joan eta noiz. Behin Usparitza auzoko bizilagun batekin bizi izandako anekdota kontatzen du.

64. Fuenterrabia taberna

- **Erref:** MUX-048/031
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:51:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Zornotzatik Gernika-Lumo aldera joaten ziren mutil edo gizon guztiak beraien osabaren Ariatza auzoko tabernan egiten zuten geldialdia. Asko bete-bete eginda agertzen ziren, txikiteo ostean azaltzen baitziren bertara.

65. Eperlanda eta "Erronda sastaia"

- **Erref:** MUX-048/035
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurak eta lur pribatuak

Laburpena:

Eperlanda erromeria tokia zen. lehenago Zugastietan batzen ziren. Handik Usparitzarako bidean "Erronda sastaia" zegoen.

66. Zahagi mutilen irudia

- **Erref:** MUX-048/037
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:55:19. **Bukatu:** 00:56:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Ariatzako zahagi mutilen koadro bi erakusten ditu. Inzunza margolariak egindakoak dira.

67. Eperlandako irudia

- **Erref:** MUX-048/038
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:56:14. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Inzunza margolariak egindako Eperlandako koadro bat erakusten digu horri buruzko azalpenekin batera.

68. Sorginkerien jatorria

- **Erref:** MUX-049/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>VIII. gizaldian, Amagoia izan zen Euskal Herriko sorginkerien eta sinesmenen buru; Amaia haren biloba zen. Amaiaren sasoian kristautasuna indartu zen. Elizak ermitak egin zituen edonon eta orduan hasi ziren ezkontzak, elizaren ospakizuna baita ezkontza. Herritarrek erromerietan batzen ziren eta gizon-emakumeak hantxe batzen ziren. Sorginkerien jatorria hortxe ei dago.</p>

Transkripzioa

- Bueno zortzigarren gizaldixen, "siglo ocho", Amagoia egon zan hondiño Euskal Herrixen sorginkerixe edo orduko ohitturen buru. Eta haren loba bat izen zan Amaia. Ta orduen Amaia sartun zanien ya kristautasune ya sartute egoan. Ta honek arbolak-eta testigu ta honek geuzek, eliziek sartu zanien danak kendu bazen, baia danak. Eta ermittie hamen ein, ermittie han beste punten, ermittie han eta lehen ohitturek horrek ohitturek egoten zien lekuen ermittie ipiñi eta elizatik paseu erain eta orduan hasi zien ezkontzak, elizakoak. Ezkontza da elizako sakramentu bet, eliziek ipiñi eban sakramentue edo eskarmentue, ez dakit, baia bardin dotso. Ta ariñau, egozan honek lekuek herrixe batzen zanak, herrixen jentie batzen zan, ba erromerixe eitteko, orduko instrumentuek, hor ikusi dogu txirula bat edo alboka soiñue edo instrumentu zaharrak, orduko sasoietaoak, eta harekin eitten zan erromerixe. Ta oingo aldien, oingo edo gure gazte denporako aldien, askatasun haundixe egoan ar-emiien artien. Erromeri askotara joan ta bata bestieri konbenziduten eben edozegaittik, edo edozelan-edo. "Ene, ba itxura poltte dekozu" edo "Berba politto eitten dozu" edo ha edo bestiegaittik. Ta hor eitten zien barrabaskerixek, ezta? Oin hori be ez da biher, ze nik dakittenez, "Zu beittu hori mutille, koño horrexeaz kapritxo bat ein biher dot /biot/". Joan, berari esan ta joan nonora, hala ein ta kittu,ezta? Ta hori horrenbeste bez, oin hori dau. Horrenbeste bez, baia nehiko askatasun handixe oingo aldien gure bizitzeko aldien. Ze gu nehiko gogor hartu ginttuezan jaixotzatik, gure gurosoak be bai. Ta hortik dator sorginkerixek-eta. Ez zien sorginkerixek. Jentie batzen zan lekuek. Ze horra be etorkoko zien Mendatatik, Albizetik, Muxiketik, inguruetatik domeka arratsaldien horra, erromerixera. Ta haixe izeten zan akelarrie, akelarre.

69. Gorozikako ipuina

- **Erref:** MUX-049/005
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

Gorozikako auzoko ipuin bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Historidxe ez hil edo holan. Baia sorgintzet egozanak asko, asko. Goroziken be zelan da hori? Goroziketik batan bat ikesten-edo Zornotzara-edo ta goizien andra batek: "Estudiante, chula gorri". "Esaizonak Kaputxeri

hil dala Txirrimirri". Esakera bat. Kaputxe be sorgin moduen, bidera urten otsona be sorgin moduen eta Txirrimirri sorgiñe hil, beste andra bateri. Holako geuzak badauz, badauz, baia ez sorgin moduen esan gure dot / quot/.

70. Asier eta Amaia "Amaia o los vascos en el siglo VIII"n

- **Erref:** MUX-049/007
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

Navarra Villosladaren "Amaia o los vascos en el siglo VIII"n Asier eta Amaiaren ipuina aipatzen da. Asierren jatorria judutarra ei da eta hor kontatzen dena kontatzen digu Deunorok.

71. Peru eta Marixen jatorria

- **Erref:** MUX-049/009
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Peru eta Marixen ipuin askotako pertsonaiak dira. Horien jatorria kontatzen du pasarte honetan.</p>

Transkripzioa

- Bueno. Hori be bakizu gizaldixek zortzigarren gizaldixe baiño eurreraukoak die horrek. Barandiaranek-eta, arkeologoak, ta Luis Mitxelenak hizkuntza alderdittik batera ingeru zazpi mille urte ingeru hor egon ziela Peru eta Marixe. Hor zerera bidien, Santimamiñera bidien, estaziñotik gora igonda, Ajangizera bidien. Ointxe dabiz, barriro ipintteko hori. Hori neuri aginddu ostien, Barandianegaz ibillitte hortik, Jose Migeleaz. Ta Klaro, orduen sasoiñ Peru eta Marixe izen zien personaje bi gizona eta andrie izetie lez, gizon bat eta andra bat, ba izenak Peru eta Marixe ipinitte eta Marixek ez deko Ama Birjiñegaz zerikusirik Marixek izenak e! Marixe da andra bat nibel bajukoa esan gure deu eta Peru ba haren agintarixe-edo. Gizona eta andrie beherau orduen. Ordukoak die. Ta haren izenak askotan erabiltzen zien, edozetarako. "Hor doa Marixe bidietakoa" esaten zan igual, esaten eben neure amumak-eta be, erromerixetara eta beti neskatiñen bat beti eurretik-edo, eurrera xamar ibiltten bazan-edo: "Hor doa Marixe bidietakoa". Bidietakoa, etxetik urten eta erromerixera bidien. "Marixe beti ernegetan eta Peru argaldu" beste esakera bat, ezta? Holako esakerak asko dauz, tripe haundixeri be Poto, Poto izen ei zen lodixe. "Hor doa Poton buzkentza beti eurretik". Poto baiño eurrerau buzkentza beti. Ta eurretik ibiltzen bazan hara edo hona: "Hor doa

Poton buz kentza" edonori, Poton buz kentza Poto baiño eurrerau. Holako esakerak herrixek baeukezan, bai, eta hortik dator Peru eta Marixen historitxue.

72. Lehen, ezkondu barik elkartu egiten ziren

- **Erref:** MUX-049/010
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Peru eta Marixen ipuinagaz lotuta, Barandiaranek bertako leku batean ezkontzak egiten zirela esan zuen, baina Deunorok ez du uste horrela zenik, kristautasuna ezarri zenetik ezkontzak ermitetan egiten zirelako. Muxikako parrokia ere sasoi hartakoa da, duela 1100 urte ingurukoa. Galdutako hainbat ermita daude. Lehen, ezkondu barik elkartu egiten ziren.

Transkripzioa

- Gero hori erabili zen alkartziek-eta eitteko-ta. Barandiaranek ipintten deu horko Ajangizera bidekoagaittik be, hor eitten ziela ezkontzak eta tratuek. Ta nik ez dot siñestuten hor ezkontzarik eitten zanik. Ze elizie sartun zanian hona eta ermittek eta istorixek eta dana horrek danak kendu bazenien, hor ez zan eitten ezkontzarik, edo traturik. Ezkontzak ermittetan eitten zien eta elizetan. Eta Muxikeko eliziek be mille ta ehun ta piku urte dekoz, Muxikeko parrokiak be. Honexen ostetxuen, honek Peru eta Marixen eta honen atzetik. Hamen erminttie eta hamen Txakalen egon zan ermitte bat, Madaleniena eta beste bat Uspitzan (Usparitzan) San Isidro eta beste bat, beste asko egon zien! Oin galdute dauzenak be, berton-berton ingeruen. Horrek eitten hasi zienien ya akabeu zien Peru eta Marixe, sorgiñek ta horrek ezkontzak-eta eittie, ezkontzak ez, batzarrak eittie. Ta ezkondu barik alkartu eitten zien, alkartu. Gero etor zien anilloak-eta ipinttie eta istorixek eta horrek.

73. Joxemiel Barandiaranekin

- **Erref:** MUX-049/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Deunoro Joxemiel Barandiaranekin aritu zen hark behar zuen kontu batean laguntzen. Sasoi hartakoak dakartza gogora.

Transkripzioa

- Ba Barandiaranegaz zetan ibil ziñen zu?
- Ni Barandiaran etor jaten baten, entzun ein dabela, entzun baten batek esanda, harri espezialen bat, harri haundi espezialen bat dauela hamentxe

Ajengizko trokan, Maierretik eurrerau joanda hortxe, eta haixe topetan lagundu biher dotsetela /bitsetela/ eta domeka goiz baten joan giñen. Eta orduen esplikeu osten hori Peru eta Marixe nun egon zien exakto, Marixe nun eta Peru nun ta holan joan giñen. Hor egon giñen arratsaldeko, bokadillo bana janda, berak ekarri osten /ekarristen/ bokadilloa, bokadillotxu bana janda, illuntzera arte ibil giñen buelta ta buelta ta buelta eta pregunteka danari-ta. Bai hortxe atzera etor giñen Muxikeko estaziñora ta ni Aritzara bizikletie hartunde. Domekako bihera.

- Ba bera lekutetik etor zan.

- Bai, zeretik Ataunetik, Bai baia Santimamiñen egonda egon zan ariñau. Hametik hortik paseute egon zan mille bederatzirehun eta hogeta batien eta hogeta lauen be. Berak esan konte osten /kontesten/ hogeta batien egon zala Marixe jeusitte. Ta hogeta lauen etor zanien, Peru be jeusitte-edo egon ei zen, usteldute-edo, usteldute. Ni hirurogeta bost edo seixen joan nitzen ni haregaz. Ez daitz zein urte.

- Bera be ya edadekoa.

- Bai, bai zahartxu egon zan bai.

- Zelakoa zan bera?

- Bueno, ixe neure besteko alturie euki ban. Baia argal-argal-argala, txapelagaz beti, surre be neure antzeko luzetxue. Ta politto, euskeraz eitten eban politto, gipuzkueraz. Ta ni irakurritte asko ta egon nitzelez ordureko bertsotan-eta hortik ibillitte, ba ondo konpontzen giñen.

- Eta nun ezetu zendun ba bera Barandiaran?

- Zornotzan batzar baten hori ta Nikolas Ormetxea "Orixe" ha be bai.

74. Zahagiaren hiletaren jatorria 1889an

- **Erref:** MUX-049/013
- **Iraupena:** 0:06:22. **Hasi:** 00:28:53. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Muxikako Ariatza auzoko jaietan, iraileko Santa Kurtzetan, urtero ospatzen da domekaz "Saragixen intierrue" herri antzerkia 1889. urtetik. Ospakizun ospetsu horren jatorria azaltzen du. Hileta 1921an egin zen lehen aldiz.

75. Zahagiaren hileta ospatzeko arazoak diktaduran

- **Erref:** MUX-049/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:41:41. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Ariatza auzoko jaietan ospatzen den "Saragiaren hileta" ospakizuna 1889 urtetik dator, baina antzerkia 1960ko hamarkadan egin zuten lehen aldiz. Sasoi hartan, diktadura garaian, beti izaten zituzten arazoak.

Transkripzioa

- Ostantzien zaragixena, teatroa-ta? Hori joe lelengoko biderrez izen zanian, burdixek azpigarrixegaz-eta ekarritte ta enei! Mille bederatzirehun ta hirurogeta asko barik.

- Eta problemarik ez zenduezan eukitten guarda zobillekaz-eta?

- Beti guarda zobillen menpien, beti ia zer, ia nundik doan asuntua. Txibatoak egon zielez euzoan, itzelak, itzelak. Tabernan be zeuzer esaten bagendun be taka jakitten eben herri guztixen ensegidakoa ta guarda zobillek be igual-ta. Ta abisue beti: "Kontuz gero hara tabernara joaten zarenien, kontuz ze esaten dozuen!". Etxien hori entzun barik ez giñen joaten tabernara. Hori. Ba holantxik.

76. 'Aurrekua' liburua

- **Erref:** MUX-049/020
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:47:42. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Aurrekua izeneko liburua argitaratu zuen Deunorok elkarriketa hau egin baino arinago. Liburuko eduki asko jendeak ez ei ditu ulertu eta hori azaltzen du, zer den aurrekua: arrak emeari egiten dion demostrazioa. Matriarkatuko oinarriak ere aipatzen ditu.</p>

77. Bizkargin lehen aldiz ikurrina berak jarri zuen

- **Erref:** MUX-049/025
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

18-19 urte zituela, Gernikako Idiga lantegian zebilela beste lankide bategaz ikurrina eustekoa egin zuen. Bizkargi mendira igo eta teilatuan ikurrina jarri zuten bertako jaiegunean, guztiz galarazita zegoen sasoian. Ikurrina tente jarri zenean, Guardia Zibila agertu zen pinu artetik. Josu Mota izan zen bere lankide hori.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com